



**Docentiaz**

# **DOCENTIAZ**

## **IRAKASLANA EBALUATZEKO PROGRAMA**

**DOCENTIAZ programaren hamabigarren deialdian  
parte hartu zuten irakasleei zuzendutako iritzi inkestan  
oinarritutako txostena**

**2022ko azaroa**





## SARRERA

DOCENTIAZ, UPV/EHUko irakasleen irakaslan ebaluatzeko gaur egungo eredia, ANECAk 2007an, ebaluazio agentzia autonomikoekin koordinatuta, abian jarritako Unibertsitateko Irakasleen Irakaslana Jarduera Ebaluatzeko Laguntza Programan (DOCENTIA) oinarritua, ANECA/UNIBASQek egiaztatu du, 2019ko urtarrilaren 18an.

DOCENTIAZ programa honek (IKDI<sup>3</sup>) Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoaren eredia du oinarri, ikaslea erdigune eta ardatz delarik, eredu hori berezkoa, kooperatiboa, eleaniztuna eta inklusiboa da, ikasleak beren ikaskuntzaren jabe izatea eta jasotzen duten ikaskuntza eta modu integral, malgu eta gizartearen beharretara egokitua izatea azpimarratuz.

Hamaikagarren deialdi honek borondatezkoa da eta, aurreko deialdietan bezala, deialdiaren irekiera (EZ) Ebaluazio Zerbitzuak argitara eman zuen, 2021eko abenduaren 16ko Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, zerbitzuaren webgunean hamabigarren deialdi honen oinarriak argitaratuz. Halaber, Dekanoei, Ikastetxeko Zuzendariei eta Gobernu Kontseiluari jakinarazi zitzairen.

Deialdiaren argitalpena 2022ko urtarrilaren 31n izan zen, eta DOCENTIAZ programan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 1etik 28ra izan zen, biak barne.

Autotxostena, funtsezko oinarri dokumentala ebaluatzeko DOCENTIAZ programan, ebaluazio hezigarriaren zerbitzuan tresna baliagarria da, eta, bere azken helburua hausnarketa sustatzea da, irakasleen lana zailtzen duten irakaskuntzako alderdiak hautemateko.

Autotxostena ondorengo dimentsioetan dago egituratuta:

- 0. DIMENTSIOA: Irakaskuntza zama eta haren bost faktore zuzentzaileak: talde bakoitzeko ikasle kopurua, eskolak zenbat ikastegitan ematen diren, euskaraz edo ingelesez ematen diren eskolak, irakasgai kopurua eta irakasle berria izatea (ez iraunkorra).
- 1. DIMENTSIOA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren Plangintza eta Garapena.
- 2. DIMENTSIOA: Emaitzak (Arrakasta tasak eta irakasleen irakaslanaz ikasleek duten iritziari buruzko inkestak).
- 3. DIMENTSIOA: Irakasleen garapen profesionala: Irakats lidergoa., Zuzendutako edo gainbegiraturako lan akademikoak, Prestakuntza (jasotakoa eta emandakoa), Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak Goi Hezkuntzan, eta Hedapena.

Irakasleak ebaluatzeko erabiltzen den informazio gehiena automatikoki deskargatzen da erakundeen datu-baseetatik: 0. dimentsioari dagozkion datuak, arrakasta tasak, irakasleek eskaintako irakaskuntzari buruzko ikasleen iritzi inkestako emaitzak, zuzendutako edo gainbegiraturako lanak, eta, baldin eta UPV/EHUko datu basean jasota badaude, emandako edo jasotako ikastaroak edo mintegiak, irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan izandako parte hartzea, etab.

Txosten honetan, hamabigarren deialdian DOCENTIAZ programan borondatez parte hartu duten irakasleen iritzia jasotzen da. Ebaluazio Zerbitzuak (EZ) galdetegi bat bidali zuen uztailean, eta hura betetzeko epea uztailearen 29ean amaitu zen. Irakasleek telematikoki eta modu anonimoan erantzun zuten, "encuesta fácil" plataformaren bidez. Adierazi behar da galdetegia bidali zitzaiela Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak (IEUB) egindako azken ebaluazio txostena jaso ondoren.



## INFORMAZIOAREN ANALISIA

Galdera sortak Likert erako neurketa eskala bat du, atal irekiekin eta lau bloke tematikotan banatzen diren 12 galderak ditu:

- 1) Testuingurua zehazteko itaunak (1-2 galderak).
- 2) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukiari buruzko itaunak (3-7 galderak).
- 3) DOCENTIAZ programara aurkezteko norberaren motibazioari buruzko itaunak (8-9 galderak).
- 4) Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren (SED/IEZ) funtzionamenduari buruzko galdera (SED/IEZ) (10. galdera).
- 5) Hamargarren deialdi honekiko asebetetze orokorrari buruzko itaunak (11 galdera).
- 6) DOCENTIAZ programaren balioespen orokorrari eta bere garapenari buruzko galdera irekia (12. galdera).

Jarraian, lortutako emaitza nagusiak laburbiltzen dira, ondorengo eranskinean grafikoki adierazita daudenak:

- 1) Testuingurua zehazteko galderak (1-2 galderak).  
Galdetegia betetzeko gonbita egin zitzaizen parte-hartzaile guztietatik (314) 201ek erantzun zuten, hau da, % 64k.
- 2) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukiari buruzko galderak (3-7 galderak).  
Emaitzen analisiari helduta, DOCENTIAZ programa honela ikusten dute hamaikagarren deialdi honetako irakasleek:
  - Hezigarria (%75 gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados dago)
  - Beharrezkoa (%77 gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados dago)
  - Egokia (%84 gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados dago)

Ebaluaziorako protokoloari oso lagungarri deritzote autotxostena egiteko orduan, baita programa gardentzat kalifikatze aldera oinarria ere.

- 3) DOCENTIAZ programara aurkezteko norberaren motibazioari buruzko galderak (8-9 galderak).

Irakasleek hamabigarren deialdi honetan borondatez parte hartzeko izan dituzten arrazoiez hitz eginez, honako hauek lirateke:

(Adierazitako ehunekoak erantzunei dagozkie: gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados dago).

- %65k uste du DOCENTIAZ programak balio duela irakaslanen hobetu beharreko alderdiak detektatzeko.

- %90k uste du eginbeharretako bat dela irakaslanaren ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaion bezala.
- %81k uste du balioko duela bere irakaslanaren aitortzea lortzeko.
- %79k azpimarratzen du ikastegi, saile edo beste unibertsitateko erakunde batzuen onerako egin dutela (ikastegiko kalitate erakuslea, dekanotzaren proposamena, eta abar)
- %89ek azpimarratzen du irakasleen akreditazioaren prozesuetan daukadan ondorioa, oposaketetan, lan poltsetan, ANECA, UNIBASQ, JAP deialdietan, aparteko ordainsari osagarriak eta abar.

#### 4) Ebaluazio Zerbitzuaren (SE/EZ) funtzionamenduari buruzko galderak (10. galdera).

Ebaluazio Zerbitzuetik jasotako arreta positiboki baloratzen da. Item hori baloratu zuten irakasleen % 81en ustez, Ebaluazio Zerbitzuko langileei egindako kontsultetan jasotako arretari dagokionez, nahiko edo erabat ados zeuden arreta egokia izan zela esatearekin.

#### 5) Hamabigarren deialdi honekiko asebetetze orokorrari buruzko galderak (11 galdera).

Irakasleen % 85 asebetetik dago DOCENTIAZ programaren hamabigarren deialdian parte hartu izanagatik (gutxi gorabehera ados: %26, nahiko ados: % 33 eta erabat ados: % 26).

## ONDORIOAK

UPV/EHUko Docentiaz programa pixkanaka ezarri da zortzi deialdi esperimentaletan zehar, eta bederatzigarren deialdian UNIBASQ/ANECAn programaren ziurtagiria lortu zuen, erreferentziazko programa bilakatu da UPV/EHUko irakasleentzat, irakaslanaren ebaluatzeko erreminta gisa, ikasleak gune eta ardatz dituen ikaskuntza-irakaskuntzarako eredu kooperatibo eta dinamikoa, IKDi<sup>3</sup>, oinarri hartuta.

Hamabigarren deialdi honetan parte hartu duten irakasleei aplikatutako inkestak honako datu hauek eman ditu: gehiengoa asebetetik dago parte hartu izanagatik, irakasleek DOCENTIAZ programa hezigarri, beharrezko eta egokia dela pentsatzen dute. Ados agertzen dira, era berean, hiru informazio iturri erabiltzearekin: irakasleak, ikasleak eta Ikastegietako Kalitate Batzordeak.

Irakasleek programa honetan borondatez parte hartzeko dituzten arrazoiek norberaren aitortza, irakaskuntza hobetzea eta beren irakaslanaren ebaluazioaren jarraipenean interesa dute helburu.

Ebaluazio Zerbitzuak emandako arreta oso positibotzat jotzen da.

Docentiaz programan parte hartzearekin asebetetzea hautematen da, eta ikusten da Docentiaz, ebaluazio programa gisa, beharrezkotzat jotzen dela unibertsitate ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan etengabeko hobekuntza lortu nahi duen erakunde sarean.




## **Eranskina: Jasotako erantzunak**









## Ehuneko balioak dituzten grafikoak:



## 2. Itema Mesedez aukeratu zure Jakintza Adarra:




## 3. Itema DOCENTIAZ programa da:







### 5. Itema Adierazi zenbat ordu eman dituzun autotxostena egiten, gutxi gorabehera:




### 6. Itema Ebaluaziorako protokoloa lagungarria izan da autotxostena egiteko:



## 7. Itema Protokoloan emandako informazioagatik, programaren ebaluazioa gardena da:




## 8. Itema DOCENTIAZ programan parte hartu dut, zeren:






### 10. Item Ebaluazio Zerbitzuko langileek behar bezala erantzun diete egindako galderei:



### 11. Item Pozik nago DOCENTIAZ programaren hamabigarren deialdian parte hartu dudalako:







## Erantzun irekia duten itemen emaitzak, erantzunak gaikako edukien arabera bilduta.

### 4. itema.- Adierazi autotxostena egitean izan duzun zailtasun bat:

Item honi dagozkion erantzunen tratamenduan, kategorizazio bat egiten saiatu gara, jasotako erantzunen edukiaren antzekotasuna kontuan hartuta (178), adierazgarrienak errepikatuz eta letra lodiz nabarmendutako edukiarekiko guztizko kopurua kuantifikatuz, kategoriaren titulu orokor gisa jardungo lukeena.

- **Aplikazio informatikoa (48):** Aplikazio zaharkitua. Plataformaren moteltasuna. Ulertzeko zailtasuna. Plataformarako konexiorik gabeko aldi baterako geldialdiak. Aplikazio zurruna, korapilatsua eta intuizio gutxikoa. Merezimenduak grabatzean, horietako bakoitza gordetzean, berriz ere hasierako puntura eramaten du. Ekintza bakoitzak sistema kargatzea eskatzen du.
- **Dokumentazioaren pilaketa (16).** Alegatutako merezimenduak justifikatzen dituzten ziurtagiriak lortzea eta eskabidea aplikazioaren bidez betetzea. Ebidentziak eskatzea, dagoeneko administrazioaren esku daudenak eta berriz eskatzen direnak. Ziurtagiriak biltzea, oso argi ez dagoelako zer balioztatu den eta zer ez.
- **Denbora (6):** Denbora asko darama. Zeregin neurrigabea. klaseekin aldiberekotasuna
- **Merituak (5):** Irakaskuntza-merezimenduak kategoria egokietan sailkatzeko zailtasuna
- **DOCENTIAZ programaren ulermen orokorra (5):** Irakaskuntza-merezimenduak kategoria egokietan sailkatzeko zailtasuna.
- **Programaren ezjakintasuna (14):** Ebaluazio-irizpideak, gaitasunak eta ikaskuntzaren emaitzak ez dira behar bezala zehaztu. Protokoloaren luzera, atal bakoitzaren pisua jakitea zailtzen duena. Dimentsioen espezifikotasun-maila handia.
- **Ikasleen gida (4):** Ikasleen gida egokitzea, alderdi guztiak doitzeko.
- **Adibideak eta prestakuntza (10):** Adibiderik eza. Prestakuntza eskasa eta beharrezkoa, irakasle berrientzat.
- **Irizpideen arbitrariotasuna eta balizko subjektibotasuna (4)**
- **Ez da zailtasunik izan (57).**
- **Beste alderdi batzuk (9).**

### 9. itema.- Adierazi izan duzun beste arrazoiren bat DOCENTIAZ programan parte hartzeko:

- Etengabeko hobekuntza bilatzea, curriculumak hobetzea, metodologia aktiboan sakontzea, ebaluazio-prozesuaren alderdi garrantzitsuenak ezagutzea (18).
- Horrek berekin dakarren aitorpena, maila pertsonalean, akademikoan eta ekonomikoan (36).

- Aldez aurreko baldintza, PIEk lortzea errazten duena, GAITUZ, DOITU eta IKDi3n parte hartzea (12).
- Docentiaz programan lortutako lehen ziurtagiriarekin hasitako ibilbidearekin jarraitzea edo ziurtapen-prozesua hasia (6)
- Konpromisoa talde dekanoarekin, departamentuarekin, unibertsitatearekin (10)

**12. itema.- Programari edo hamabigarren deialdi esperimental honi buruzko iruzkinik egin nahi baduzu, idatzi beheko laukian.**

**Programa orokorrean:**

- Programa informatikoa ez da oso intuitiboa, nahasmena sortzen du eta nabigatzaile batzuekin bakarrik funtzionatzen du.
- Gogobetetze-inkestan, ez litzateke derrigorrezkoa izan behar testu libreko galderei erantzutea.
- Programa egokia da bere garapenean eta beharrezkoa da. Ebaluazioa objektiboa da, subjektibotasunaren mende egoteagatik eztabaidagarriak izan daitezkeen puntu batzuetan izan ezik, horrek ez baitio baliorik kentzen ebaluazioari.
- Docentiaz programaren emaitzak oso baldintzatuta daude irakasgai motaren eta ikasleen emaitza akademikoen mailaren arabera.
- Irakaskuntza-testuak egitea gehiago balioztatu beharko litzateke.
- ANECAk egindako azken urratsen ildotik, irakaskuntza irizpide kualitatiboagoekin ebaluatu behar da, eta horrek barne har dezake kasuan kasuko irakaslearen eskoletako batera joatea edo gutxienez irakaslearekin elkarriketa bat izatea. Irakaskuntza prozesu konplexua da, ez emaitza unibokoa, eta horren adierazleak ezin dira erabat kuantifikatu, baina bai estimatu, betiere zorrotasunez.
- Irakaskuntzako prestakuntza-lerro oso zehatz bat egiten dutenentzat eta metodologia jakin batzuk espezifikoki aplikatzen dituztenentzat da. Ez da kontuan hartzen diziplina/ikasgai/irakasgai askotan dena ezin dela zuzenean aplikatu eta egokitzapenak egin behar direla.
- Hainbat alderdi hartu beharko liriateke kontuan: irakasgai berriak ematea, adibidez, gradu berrietan, irakaskuntza-jardunaren faktorea kalkulatzeko.
- Seme-alaba adingabeak (edo antzekoak) zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa izanez gero, 3. dimentsioko puntuazioa kaltetu egin daiteke, puntuazio absolutua baita, eta ez kontratu aktiboaren denborari dagokiona. Horrek, gainera, emakumeei kalte egiten die batez ere, eta, oro har, emakumeei ematen zaizkie zainketak. Dimentsio horretako puntuazioa lan egindako denboraren arabera haztatu beharko litzateke (lanaldi-erdiak, eszedentziak, amatasun-baimenak, etab.).
- Zalantzakoa da gaur egun "irakaskuntzako jardunbide egokitzaile" jotzen diren irizpideak benetan hala diren kasu guztietan, datu kontraesankorrak baitaude





literaturan zein irakaskuntzan, adibidez, 100 ikasleko taldeen etengabeko ebaluazioari dagokionez.

- Protokoloak zehatzagoa eta esplizituagoa izan beharko luke. Docentiaz programan parte hartu gabe ezagutarazi beharko litzateke, irakasleek ikaslearen gida eta ikaskuntza lan prestatzerakoan kontuan har zezaten.
- Azpimarragarriena da irakasle guztiek ez dituztela irakaslanako merezimenduak lortzeko aukera berdinak. Ematen den irakasgai motaren, irakasle taldearen eta irakasten den zentroaren arabera da. Ikerketa-merezimenduak lortzeko aukerarekin gertatzen den gauza bera gertatzen da.
- Badira merituak, hala nola TFGen zuzendaritza edo Erasmus elkartrukeko ikasleekin egindako nazioarteko koordinazioko lanak, ahalegin eta denbora asko daramatenak eta oso gutxi balioztatzen direnak Docentiaz-en.
- 3. Dimentsioak (Irakaslanaren Garapen Profesionala) pisu handiegia du ebaluazioan. Funtsean, kudeaketa eta/edo koordinazio-postuekin lotutako alderdietan zentratzen da dimentsio hori.
- Aurkeztutako merezimendu bakoitzaren puntuazioaren banakapena falta da.
- Aurkeztutako ebaluazio-prozedurak balioztatutakoan, oso garrantzi gutxi ematen zaio ezagutzak eskuratzeari, eta garrantzi handia ematen zaio errubrika konplexuak lantzeari, prozedurara oso bideratuta daudenak, irakaslearentzat onargaitza den lan-kantitatea sortzen dutenak eta ebaluazioari objektibotasun handia kentzen diotenak.
- Eskiera bat ebaluatzeko, ebaluatzaileak aurreko deialdietan jasotako ebaluaziora jo beharko luke. Horrela, ebaluazio koherente bat egin ahal izango luke. Irakasle eta ikasgai bererako, 1. dimentsioan aldaketa esanguratsurik izan ez bada, ez litzateke alde handirik egon behar.
- Lehen mailako irakasgaiak ematen dituzten irakasleek, talde bakoitzeko 90 ikasle inguru dituztenek, oro har kalifikazio txarragoak dituzte, alde batera utzita ezin dela konparatu 10 ikasle baino gutxiagokoekin, egiten den irakaskuntza aktiboa aplikatzeko ahaleginarekin alderatuta.
- Ikasgai bateko ikasle-talde bakoitzaren ebaluazioa gaizki planteatuta dago. Ikasgai bat taldetan banatzen denean, haien arteko aldea izugarria da, baita irakaslea bera bada ere.
- Ez da egokia irakaskuntzan ibilbide luzea duten pertsonentzat, lehen urteetan jasotako prestakuntza (garrantzitsuena) ez baita batere baloratzen.

## Beste batzuk:

- Interesgarria litzateke deialdia etengabe irekita egotea, irakasle bakoitza bere betebeharren arabera (irakaskuntza, ikerketa, kudeaketa) antolatu ahal izateko, bere komenigarritasunaren arabera egin ahal izateko.
- Inkesta eskaera egiten denean bete beharko litzateke, une horretan izaten baitira gogoan programaren indarguneak eta gabeziak.
- Komenigarria litzateke, gero, merezimendu gehiago eranstea (3. dimentsioa).
- Ez da ulertzen irakasle on gisa garatzeak ikastaroak ematea edo irakaskuntza-materiala argitaratzea bezalako alderdiak barne hartu behar dituenik.
- Unibertsitate-komunitate osoari eskatu beharko litzaioke.
- Txostenak nola egin behar diren jakiteko ikastaro praktikoko gehiago behar dira.
- Prestakuntza-ikastaroei dagokienez, deigarria da ikastaroen eskaerak sistematikoki ukatzea (irakasle hasiberriei laguntzeko, ustez) eta, bestalde, ikastaro gehiago egin behar direla esatea.
- Oso lagungarria izango litzateke ikasturtean zehar ikastaro laburrak egiteko aukera eskaintzea, aldi bakoitzean hainbat atal jorratuz, adibideak emanez, eta ikaslearen gidaren hainbat atal pixkanaka garatzeko aukera emanez. Egin beharreko gauza asko direla eta, inoiz ez da "une" egokia DOZENTIArako ikaslearen gida egiteko eta irakaskuntza-lanari buruzko benetako hausnarketa egiteko.
- Irakaskuntza-bertute batzuk bateraezinak dira beste batzuekin. Adibidez, ikasleei ziurgabetasuna lantzen irakastea balio bat da, baina balio hori Boloniak dakarren gardentasun-konpromisoaren aurka dago (adibidez, ebaluazio-errubrikak argitaratzean). Aukeratu egin behar da. Hala ere, inkongruentzia txiki horiek ez dira nahikoa hautagaiak zigortzeko.
- Dozentiaz programan nota ona lortzeak ez ditu irakasle onak egiten. DOZENTIAZ programaren bikaintasunak ez du bermatzen "transmisio-gaitasuna", ikaslearengan jakin-mina piztea eta, hori egin ondoren, edukiak irakastea.
- Irakasleen gehiengoan motibazioa, onartu ala ez, egiaztapen-prozesuetan duten eragina da, eta ez irakaskuntza-maila benetan hobetzea.
- Elebidunak ez direnek asko dute galtzeko elebidunen aurrean.
- Oso baliagarria izango litzateke IEUBeko adituetakoren batekin hitz egiteko aukera emango luketen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren zenbait dimentsiotan ikusitako ahuleziak hobetzeko.
- Irakaskuntzaren kalitatea benetan ebaluatzeko, irakasleak banan-banan aipatu beharko lirateke eta jakintza-arloari buruzko ikasgai labur bat eman beharko litzaioke



arlu bereko pertsonen osatutako epaimahaiari, eta ebaluazio hori ikasleen gogobetetze-inkestek emaitzekin osatu beharko litzateke.

- Ebaluazio-sistemei dagokienez, ez da ulertzen nola erabaki dezaketen ebaluatzaileek metodologia egokia den ikasgai bakoitzaren ezaugarriak ezagutu gabe.
- Sail eta fakultateak ikasleen inkestak (batez bestekoak 5 urtean behin) eta irakasle eta ikertzaileen Docentiazko emaitzak argitaratzera behartu beharko lirateke.
- Epeak nahiko atzeratuta daude, batez ere akreditazio-prozesuan murgilduta daudenentzat.
- Irakasleen inkestek denboran zehar izan duten bilakaera ez da kontuan hartzen, positiboa zein negatiboa izan.
- Docentiaz-en nota ez litzateke kontuan hartu behar irakaskuntza-ebaluazioko proiektuak zuzendu ahal izateko, edo proiektu horiek ez lirateke kontuan hartu behar Docentiaz ebaluatzeko, zuzentzeko aukerarik ez badago, kasu askotan zuzentzea baita irakaskuntza-ebaluazioko proiektuetan parte hartzeko modu bakarra.